

**UGI 2014 adierazleak betetzeari buruzko autoebaluazio-txostena**

<b>UGI 2014 ADIERAZLEA</b>	<b>BETETZE MAILA</b>	<b>KANPOKO OHARRAK</b>
1. Alkatearen eta zinegotzien datu biografikoak zehazten dira (gutxienez lau lerro izan behar dituzte).		"1.5 Ordezkaritza-karguak" edukian argitaratua.
2. Alkatearen eta udaleko zinegotzi bakoitzaren helbide elektronikoak zehazten dira.		"1.5 Ordezkaritza-karguak" edukian argitaratua.
3. Alkatearen agenda instituzionala argitaratzen da (webguneko atal jakin batean).		Aurreko hileko agenda argitaratzen da, alkatearen jarduera instituzionala zehazten duena.
4. Udaleko Lanpostuen Zerrenda (LZ) osoa argitaratzen da.		"1.7 Antolamendua eta giza baliabideak" edukian argitaratua.
5. Udalaren konfiantzazko karguen (postuen) banakako zerrenda argitaratzen da webguneko atal jakin batean, bai eta euren ordainsari indibidual eta kolektiboaren zenbatekoa ere (ez da baloratuko Udalaren LZren esteka orokorra).		"1.5 Ordezkaritza-karguak" edukian argitaratua.
6. Udalaren lan-eskaintza publikoa argitaratzen da, bai eta lan-eskaintzaren garapenari eta exekuzioari buruzkoa ere (azkenaldian halakorik egon ez bada, beren-beregi adieraziko da webgunean).		Udalaren webguneko "Zerbitzuak" atalean argitaratua.
7. Gobernu-organoak eta dagozkien funtzioak zehazten dira (auzo eta barrutietako batzak barne hartuta, bidezkoa bada).		"1.3 Gobernu-organoak" edukian argitaratua.
8. Deszentralizatutako organoen, erakunde instrumentalen eta udal-sozietateen oinarritzko datuak zehazten dira. Halaber, webguneetarako estekak ematen dira (Udalak halako erakunderik ez balu, webgunean beren-beregi adieraziko da).		"1.4 Lotutako erakundeak" edukian argitaratua.
9. Lanpostuen zerrenda (LZ) osoa argitaratzen da, edo deszentralizatutako organoetako, erakunde instrumentaletako eta udal-sozietateetako langileen zerrendak argitaratzen dira, konfiantzazko karguak berariaz zehaztuta (Udalan halako organismorik balego, beren-beregi adieraziko da webgunean).		LZ argitaratuta dago "1.7 Antolamendua eta giza baliabideak" edukian. Ez dago konfiantzazko langilerik, ez Derioko Udalean, ez Derioko Udal Kiroldegia (DUK) erakunde autonomoan.
10. Onartuta daude edota argitaratu egiten dira: dela Tokiko Agenda 21, dela Udalaren Plan Estrategikoa.		Egiazki Derioko Udalaren beraren Tokiko Agenda 21ik ez dagoen arren, badago bat Txorierriko Mankomunitatean. "5.1. Estrategia eta plangintza" edukian argitaratuta daude Derioko Udalaren planak eta Udalari eragiten dioten Txorierriko Mankomunitateko planak.
11. Udalari atxikitako ibilgailu ofizialen (pribatuak zein alokatuak) zerrenda zehatza argitaratzen da.		"3.4. Ondasunak eta eskubideak" edukian argitaratua.
12. Udalaren ondasunen eta eskubideen inbentarioa argitaratzen da.		"3.4. Ondasunak eta eskubideak" edukian argitaratua.
13. Eguneko aztergaien zerrendak argitaratzen dira osoko bilkurak baino lehen.		"1.3 Gobernu-organoak" edukian argitaratua.
14. Osoko bilkuren aktak osorik argitaratzen dira.		"1.3 Gobernu-organoak" edukian argitaratua.

**UGI 2014 adierazleak betetzeari buruzko autoebaluazio-txostena**

<b>UGI 2014 ADIERAZLEA</b>	<b>BETETZE MAILA</b>	<b>KANPOKO OHARRAK</b>
15. Gobernu Batzordeen erabaki osoak argitaratzen dira, bai eta akta osoak ere, Udalbatzak eskuordetuta jarduten dutenean.		"1.3 Gobernu-organoak" edukian argitaratua.
16. Osoko bilkurak zuzenean ikus daitezke webgunean, edota bideoak webgunean gordeta geratzen dira.		Ez dago bideoak grabatzeko sistemarik. Zenbait aukera tekniko aztertzen ari gara.
17. Badago, eta argitaratu egiten da, Udalaren "Gobernu onaren kode etikoa" (lehenetasuna du EUDELen Tokiko politikaren kalitate instituzionalerako konpromisoa, jokabide eta gobernu onerako kodeak).		Gardentasunaren Atarian, "Derioko Udalaren konpromisoa gardentasunarekin eta gobernu onarekin" atalean argitaratua.
18. Udalari eragiten dioten ebazpen judizialak (administrazioarekikoak, lan-esparrukoak, etab.) argitaratzen dira (osorik edo edukietara daraman esteka baten bidez). Egon ez badira, beren-beregi adieraziko da webgunean.		"1.3 Gobernu-organoak" edukian argitaratua.
19. Gardentasunari buruzko atari bat (edo atal zehatz bat) txertatu da Udalaren webgunean.		"1.2 Aplikatzeko oinarriko araudia eta ebazpen judizialak" edukian argitaratua.
20. Udalaren webgunean barne-bilaketak egiteko tresna bat dago ageri-agerian.		
21. Udalaren webguneko mapan bertan ikus daiteke, hasierako orrian.		
22. Herritarrek edo erakundeek egindako galderei buruzko datuak argitaratzen dira (gutxienez zenbat galdera jaso diren eta zenbat erantzun diren).		Informazio horren argitalpenak bat egin behar du informazio publikora sarbidea izateko eskubidea indarrean jartzearekin (gardentasun pasiboa). 19/2013 Legearen arabera, 2015eko abenduan egin beharko litzateke. Dena den, euskal legeriak aurreratu egin dezake epemuga.
23. Zerbitzuen katalogo orokorra argitaratzen da, bai eta erakundearen zerbitzu-egoitzena eta ekipamendua ere, helbidea, aurrez aurreko ordutegiak, webguneetarako estekak edota helbide elektronikoak zehaztuta.		Ez da egiazki zerbitzuen katalogoa argitaratzen, baina eginbidean dago. Herritarrentzako arretarako helbide fisikoak eta telefonoak zehazten dira.
24. Dagozkion kompetentziei buruzko izapide administratiboen katalogo eguneratua argitaratzen da, helburuak, izapideak, epeak, administrazioaren isiltasunaren esanahia eta, bidezkoa denean, lotutako inprimakiak zein diren adierazita eta izapidetze elektronikoa egiteko balizko aukerak zehaztuta.		Hainbat izapide administratibo egin daitezke on-line: BiscayTik-ek emandako aplikazioaren bidez, bizkaia.eu-k emandako kodea erabilia edo identifikazio elektronikorako txartela erabilia.
25. Webgunean trafiko-egoeraren eta trafiko-etenen edota udal-zerbitzuetan gertatutako arazoengatik inguruko informazioa argitaratzen da.		
26. Udalaren ingurumen-egoerari buruzko informazio eguneratua jasotzen da webgunean (aire-eta soinu-kutsadura).		"6.4 Ingurumenari buruzko informazioa" edukian argitaratua.
27. Udaleko talde politikoek euren iritziak eta proposamenak adierazteko espazio bat dago Udalaren webgunean.		Oraindik ez dago halakorik.
28. Herriko auzokideen elkarreentzat gordetako espazio bat dago webgunean, eta elkarte horiek proposatutako gaiak edo egindako galderei buruzko zerrenda argitaratzen da.		Oraindik ez dago halakorik.

**UGI 2014 adierazleak betetzeari buruzko autoebaluazio-txostena**

<b>UGI 2014 ADIERAZLEA</b>	<b>BETETZE MAILA</b>	<b>KANPOKO OHARRAK</b>
29. Udalaren webgunean eztabaidarako foroak edo sare sozialetako profilak daude.		Profilak: Facebook, Twitter, Tuenti, Google eta LinkedIn.
30. Herritarren parte-hartzeari buruzko araudia dago, eta argitaratu egiten da (ez balego, beren-beregi adieraziko da webgunean).		"2.3 Herritarren parte-hartzea" edukian argitaratua.
31. Udal-kontseiluak daude, bai eta herritarrek parte hartzeko bestelako bide batzuk ere, eta horiei buruzko informazioa ematen da (herritarren foroak, hirigintzako gizarte-kontseiluak...). Horien akordioak, txostenak eta proposamenak ere argitaratzen dira (halakorik ez badago, beren-beregi adieraziko da webgunean).		"2.3 Herritarren parte-hartzea" edukian argitaratzen dira herritarrek parte-hartzeko prozesuen emaitzak eta elkarteekin egindako bileren aktak.
32. Herritarrei proposamenak egiteko eta parte hartzeko aukera ematen zaie ekonomia-planak eta udal-aurrekontuak egitean.		"3.1 Aurrekontuak" edukian argitaratua.
33. Udalaren zerbitzu-karta/k dago/daude eta horri/horiei buruzko informazioa ematen da, bai eta horretan/horietan ezarritako konpromisoak zenbateraino bete diren azaldu ere.		Ez dago zerbitzu-kartarik.
34. Zerbitzuei buruzko inkestak egiten dira, eta horien emaitzak argitaratzen dira (ez bada inkestarik egin, beren-beregi adieraziko da webgunean).		Azkenaldian ez da inkestarik egin.
35. Udalbatzak, Gobernu Batzordeak, alkateak edo zinegotzi ordezkariak onetsitako aurrekontu-aldaketak argitaratzen dira.		"3. Ondarearen eta ekonomia eta finantzen informazioa" edukian argitaratua.
36. Deszentralizatutako organoen, erakunde instrumentalen eta udal-sozietateen aurrekontuak argitaratzen dira (webguneako atal jakin batean); (Udalak ez baldin badu halako erakunderik, beren-beregi adieraziko da webgunean).		"3. Ondarearen eta ekonomia eta finantzen informazioa" edukian argitaratua.
37. Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko txostenak argitaratzen dira, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek igorritakoak (halakorik ez baldin badago, beren-beregi adieraziko da webgunean).		Orain ez dago txostenik; baldin balego, argitaratu egingo lirateke.
38. Zerga-autonomiaren adierazlea argitaratzen da (zerga-sarreraren aitortutako eskubide garbiak / aitortutako eskubide garbiak, guztira)		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
39. Finantzaketa-gaitasunaren edo -beharraren adierazlea argitaratzen da, aurrekontu-egonkortasunari dagokionez (superabita edo defizita) (Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko lege organikoa).		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
40. Biztanleko dauden zerga-sarreraren adierazlea argitaratzen da (zerga-sarrerak / biztanle-kopurua).		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
41. Biztanleko gastuaren adierazlea argitaratzen da (aitortutako betebeharrak / biztanle-kopurua).		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
42. Biztanleko inbertsioaren adierazlea argitaratzen da (aitortutako betebeharrak (VI. eta VII. kap.) / biztanle-kopurua).		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
43. Batez besteko kobratze-aldiaren adierazlea argitaratzen da (kobratzeko dauden eskubideak (I-III. kap.) x 365 / aitortutako eskubide garbiak).		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.

**UGI 2014 adierazleak betetzeari buruzko autoebaluazio-txostena**

UGI 2014 ADIERAZLEA	BETETZE MAILA	KANPOKO OHARRAK
44. Hornitzaileei ordaintzeko merkataritza-operazioetan berankortasunik ez izateko neurrien txostenak argitaratzen dira, hiru hilean behingoak (HAP/2012/2015 Ministerio Aginduaren 16.7. artikulua) (halakorik ez bada, beren-beregi adieraziko da webgunean).		"3.5 Zorpetzea" edukian argitaratua.
45. Udalaren zor publiko kontsolidatua zenbatekoa den argitaratzen da, bai eta aurreko ekitaldiekin konparatuta zenbat eboluzionatu duen ere.		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
46. Kontratazio-mahaien osaketari, izenpetzeko moduari eta deialdiei buruzko informazioa ematen da (webgunean espresuki informazio hori eskuratzeko jarritako zuzeneko esteka baten bidez).		Webguneko "Kontratatzailearen profila" atalean argitaratua.
47. Kontratazio-mahaien aktak argitaratzen dira (webgunean espresuki informazio hori eskuratzeko jarritako zuzeneko esteka baten bidez).		Webguneko "Kontratatzailearen profila" atalean argitaratua.
48. Udaleko hornitzaile, esleipendun eta kontratista garrantzitsuenekin izandako operazioen zerrenda eta/edo zenbatekoa argitaratzen da (webgunean espresuki informazio hori eskuratzeko jarritako zuzeneko esteka baten bidez).		"Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea" edukian argitaratua.
49. Tasa edo prezio publikoen bidez finantzatutako zerbitzuen kostu eraginkorrari buruzko informazioa argitaratzen da.		Oraingoz ez dago halako informaziorik, baina sortu eta argitaratzeko asmoa dago.
50. Argitaratuta dago Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO), bai eta horren mapa eta planoak ere.		"6.1 Lurralde-antolamendua" edukian argitaratua: Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partziala eta BFaren webguneko mapetarako esteka.
51. Udalaren ingurumen-politikak eta -programak argitaratzen dira, bai eta horien jarraipen-txostenak ere.		"6.2 Ingurumenari buruzko informazioa" edukian argitaratua.
52. Ingurumen-eraginaren, paisaien eta ingurumeneko elementuei dagozkien arrisku-ebaluazioen ikerketak argitaratzen dira (ikerketarik egin ez bada, beren-beregi adieraziko da webgunean).		"6.2 Ingurumenari buruzko informazioa" edukian argitaratua.
53. HAPOren onetsitako aldaketak eta onetsitako plan partzialak argitaratzen dira (eta argitaratuta mantentzen dira).		"6.1 Lurralde-antolamendua" edukian eta Udalaren "Hirigintza-zerbitzuak" atalean argitaratua.
54. Udalaren hirigintza-hitzarmenen eta exekuzioan dauden hirigintza-jardueren informazio zehatza argitaratzen da.		"6.1 Lurralde-antolamendua" edukian eta Udalaren "Hirigintza-zerbitzuak" atalean argitaratua.
55. Lurzoruaren erabilera eta helburuen informazio zehatza argitaratzen da.		"6.1 Lurralde-antolamendua" edukian eta Udalaren "Hirigintza-zerbitzuak" atalean argitaratua.
56. Udalaren hirigintza-kudeaketari dagokion araudiaren (indarrean dagoena) informazio zehatza argitaratzen da (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"6.1 Lurralde-antolamendua" edukian eta Udalaren "Hirigintza-zerbitzuak" atalean argitaratua.
57. Obra publikoak lizitzatzeko proiektuak, pleguak eta irizpideak argitaratzen dira (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		Udalaren webguneko "Kontratatzailearen profila" atalean argitaratua.

**UGI 2014 adierazleak betetzeari buruzko autoebaluazio-txostena**

UGI 2014 ADIERAZLEA	BETETZE MAILA	KANPOKO OHARRAK
58. Obretarako proiektu garrantzitsuenen aldaketak (berrituak eta osagarriak) argitaratzen dira (webguneko zuzeneko esteka baten bidez) (halakorik ez badago, beren-beregi adieraziko da webgunean).		Udalaren webguneko "Kontratzailearen profila" atalean argitaratua.
59. Obra publikoen lizitazioa aurkeztu diren enpresen zerrenda argitaratzen da (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		Hobekuntza faseko edukia. Informazio guztia argitaratuko da 2015eko urtarillaren 1etik aurrera esleitzen diren lizitazioetan.
60. Obra publiko garrantzitsuenak egin dituzten enpresen zerrenda argitaratzen da (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		Udalaren webguneko "Kontratzailearen profila" atalean argitaratua.
61. Egiten ari diren azpiegitura-lan garrantzitsuenetako bakoitzari buruzko informazio zehatza ematen da (lanen helburuak eta udal-arduraduna; kontratista arduraduna/k; aurrekontuaren zenbatekoa; exekuzio-aldia) (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		Gaur egun ez dira obra garrantzitsurik egiten ari.
62. Aldian behin (gutxienez sei hilean behin), eginda dauden eta/edo onetsita baina egiteko dauden azpiegitura-lanei buruzko informazioa ematen da (txostenak, adierazpenak, prentsa-oharrak, etab.) (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		Gaur egun ez dira obra garrantzitsurik egiten ari.
63. Biztanleko azpiegitura-inbertsioaren adierazlea argitaratzen da: azpiegituretako inbertsioaren (6. kapitulua) jarduera-gastuak (egindakoak) / biztanle-kopurua.		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
64. Hirigintzako sarreraren proportzioaren adierazlea argitaratzen da: hirigintzatik eratorritako sarrerak / sarrerak guztira. (hirigintza-sarrera gisa hartutako kontzeptuak adieraziko dira webgunean: hirigintza-lizentziak, OHZ, EIOZ, hirigintza-aprobetxamendua, lurren besterengantzea. etab.).		"3.6 Ekonomia- eta finantza-ratioak" edukian argitaratua.
65. Helburu zehatzak, jarduerak, bitartekoak eta aurreikusitako denbora zehazten dituzten planak eta programak (urtekoak edo hainbat urtetarakoak) argitaratzen dira.		"5.1 Estrategia eta plangintza" edukian argitaratua.
66. Organoen arduradunak, haien funtzioak eta mendekotasun-harremanak zein diren jakiteko organigrama eguneratu bat argitaratzen da.		"Antolamendua eta giza baliabideak" edukian argitaratua.
67. Esku hartzeko eta aholkularitza juridikorako organoen barruko txostenak argitaratzen dira, behin betikoak (halako txostenik ez badago, beren-beregi adieraziko da webgunean).		Oraindik ez dago eskuragarri.
68. Formalizatutako kontratu guztiak argitaratzen dira, honako hauek adierazita: xedea, lizitazioaren eta esleipenaren zenbatekoa, erabilitako prozedura, berri emateko erabilitako tresnak, prozeduran parte hartu duten lizitatzailen kopurua eta esleipendunak (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea" edukian argitaratua.
69. Formalizatutako kontratuen aldaketak argitaratzen dira (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea" edukian argitaratua.
70. Aldian behin (gutxienez hiru hilean behin), formalizatutako kontratu txikiak argitaratzen dira, zenbatekoei eta esleipendunei buruzko informazio zehatzarekin (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea" edukian argitaratua.

**UGI 2014 adierazleak betetzeari buruzko autoebaluazio-txostena**

<b>UGI 2014 ADIERAZLEA</b>	<b>BETETZE MAILA</b>	<b>KANPOKO OHARRAK</b>
71. Datu estatistikoak argitaratzen dira sektore publikoko kontratuen legerian ezarritako prozeduren bidez esleitutako kontratuen aurrekontuaren ehunekoari buruz (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea" edukian argitaratua.
72. Sinatutako kontratuen zerrenda argitaratzen da, honako hauek adierazita: sinatu duten aldeak, xedea eta, hala badagokio, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"4.2 Hitzarmenak" edukian argitaratua.
73. Emandako diru-laguntzak eta laguntza publikoak argitaratzen dira, honako hauek adierazita: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.		"4.3 Emandako diru-laguntzak" edukian argitaratua.
74. Udaleko goi-kargudunek (gutxienez hautatutako kargudunek eta, hala badagokio, zuzendari nagusiek) eta Udalak parte hartzen duen erakundearen arduradun nagusiek jasotzen dituzten ordainsariak argitaratzen dira (webguneko zuzeneko esteka baten bidez).		"1.5 Ordezkaritza-karguak" edukian argitaratua.
75. Karguak uzteagatik jasotako kalte-ordainak argitaratzen dira (halakorik izan bada, beren beregi adieraziko da webgunean).		"1.5 Ordezkaritza-karguak" edukian argitaratua.
76. Udaleko goi-kargudunen jardura eta ondasunen interesen erregistroa argitaratzen da (Toki Araubidearen oinarriak arautzeko Legeak ezarria).		"1.5 Ordezkaritza-karguak" edukian argitaratua.
77. Higiezin zerrenda (bulegoak, lokalak, etab.) argitaratzen da, izan propioak, lagapen-araubidearen mendekoak, okupatuak eta/edo Udalari atxikiak.		"3.4 Ondasunak eta eskubideak" edukian argitaratua.
78. Udalaren aurrekontuak argitaratzen dira, eta aurrekontu-sail nagusiak zehaztu eta exekuzio-egoeraren informazio eguneratua ematen da (gutxienez hiru hilean behin).		"3.1 Aurrekontuak" edukian argitaratua.
79. Udalaren urteko kontuak/kontu orokorra argitaratzen dira (balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, memoria eta aurrekontu-likidazioa).		"3.3 Urteko kontuak" edukian argitaratua".
80. Kontu-ikuskaritzaren eta/edo fiskalizazioaren txostenak argitaratzen dira, kontrolerako kanpoko organoen eskutik (Kontu-auzitegia edo -ganbera), bai Udalekoak, bai udaleko sektore publikoko erakundeetakoak.		"7.1 Kanpoko kontrolak" edukian argitaratua.

<b>Betetze-maila erabatekoa edo oso handia</b>	<b>67</b>	<b>84%</b>
<b>Tarteko betetze-maila</b>	<b>1</b>	<b>1%</b>
<b>Oraindik argitaratu gabea</b>	<b>12</b>	<b>15%</b>